



## EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA

### UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua) (A aukera)

Euskal literaturari buruzko *liburuak* zerrenda hutsak (idazleen eta haien lanen zerrenda hutsak) ziren garaia iragana da dagoeneko. Gero eta sarriago irakurri ahal izaten ditugu literaturgintzaren inguruko salo monografikoak, joeren azterketak, lanen *kalitateari* buruzko iritziak, jldo orokorrekiko zein zehatzekiko analisiak.

Arlo honetan plazaratu den azken liburua dugu Inma Erreak idatzitako «Literatura eta harrikoa», Pamielak kaleratuta. Lehen irakurraldi arinak pausatuko irakurtzeko gogoak piztu dit. Gala berria ez izan arren (emakumearen era literaturaren arteko erlazioa), estilo berezkoak eta ikuspegi berriak **erakargarri** egiten dute, oso.

Zentzu honetan esan behar da azken hamarkada erabakigarria izan dela euskaraz idazten duten emakumeentzat. Bizkaitar eta nafar idazleei buruz oraintsu esan berri duguna, emakume *idazleentzat* ere baliagarria da: kopuruaren aldetik ugaltu eta soziologikoki presentzia areagotzea lortu dute, clero era normaltasun handiaqoz jalqitzen baitira letren plazara, hau da, literaturgintzaren eremu publikora (pribatua beti egon dira eta).

Bidea jorratzen ari da, baina bide luzea dago orainqoz egiteke. Plaza horretan hogeitau urte daramagunok oraindik nozitzen dugu kristalezko sabaia gure buruen gainean. Egin egiten dugu; ezagutu ezagutzen zaigu egindako lana, baina beti aparteko sailkapen batean kontabilizatuko zaigu, parametro ezberdinak dituen rankingean, emakumeen eta gizonen lanak konparagarriak ez balira bezala, lehia honetan kategoria ezberdinetan jokatu bagenu bezala.

Emakume baten lana goraiatu nahi denean "emakume idazleen artean onenetarikoak dela" esaten da, mesedea eqiten zaiolakoan. Eta idazle "guztien artean", zein *postutan* jarri beharko genuke? Rankingean zenbat postu beherago? Gizon guztien ondorengo hurrengoan?

Jon Alonsori sarritan entzun diogu esaten "berandu heldu" zela literaturara, belaunaldikideak baino beranduago eta periferiatik argitaratzen hasi zelako. Nire **belaunaldiko** emakumeei, aldiz, askotan iruditzen zaigu "goizegi heldu" garela literaturara. Hogeitau urte barru, agian, emakume idazleek kide maskulinoen sailkapen berean sartzea lortuko dute eta. LAURA MINTEGI. *Nabarra aldizkaria*.

## GALDERAK

1. Azpimarraturik dauden hitzen sinonimo bana eman (Puntu bat).

2. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik dauden perpausak (Puntu bat).
3. Beltz nabarmenez dauden hitz atzizkidunak kontuan hartu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin (Puntu bat).
4. Letra etzanean dauden hitzen deklinabide-kasua eta numeroa aipatu, falta diren numeroen formak eman. Hona hitzak: *idazleentzat, postutan, liburuak, kalitateari* (Puntu bat).
5. Aztertu testu honen kohesioa eta koherentzia (3 p).
6. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 p).
7. Txomin Agirre: koka ezazu bere garaiak eta mintza zaitez bere obren ezaugarriez (Puntu bat).

## EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA

### UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredu) (B aukera)

Bi urte pasa dira Ibarretxe Lehendakariak Kulturaren Euskal Plana iragarri zuenetik. Urte bete beranduago, iaz, hasi ziren lehenengo bilerak. Datorren irailaren erdialderako espero da mahai gainean izatea lehen zirriborroa. Kulturaren Euskal Plana... Ez dirudi ez ahuntzaren gauerdiko eztula denik Gure kulturaren etorkizuna jokoan! Baina zoritxarrez umeekin parkera ateratzean, edo supermerkatuan arraina erostean, edo edozein egunkari irakurtzerakoan, ez dut horren inguruko eztabaida handirik aurkitu. Zergatik ote? Kulturak berdin digulako, edo akaso kulturak baloi itxura ez duelako?

Sarritan uste dut, Jainkoak egutegiko zazpigarren egun hura, ez zuela atsedenerako erabili, ez atsedeen osorako behintzat. Ziurrenik, egun horretan, jendearen aisialdian pentsatuz, egun baloi bezala ezaqutzen dugun traste sakratua asmatu zuen. Egia esan, behin mundua sortu eta gero, baloia asmatzeak ez zion buruko min handiegirik emango. Biak forma bera, borobila. Biak jira eta bira. Eta arrazoi ezberdinengatik bada ere, biak jasan behar gizakion **haserraldi** eta **ostikadak...** en fin! Zeinek dio **erokeria** bat diodanik? Bestela nola ulertu borobil itxura duen traste horrek horrenbesteko adikzioa sortzea Jainkoaren erreinu honetan?

Herri txiki baten bizi den ezagun baten zazpi urteko semeak psikologo baten laguntza izan du azken bi urteetan. Zer da hori erotuta dagoen mundu baterako? Ahuntzaren gauerdiko eztula ez behintzat! Amak, umea eskolara joateko beldurrez somatzen zuela... Zer ote du? Zer? Azkenean argia egin eta erantzuna jakin zuten. Futboleak aritzea gustatu ez, eta bere gelakideek pitilina zutenak jakina, burla egiten zioten. Eta mutikoa gero eta okerrago, bakartiago eta baztertuago, eta azkenean amarj negarrez joan, eta baloia erosteko eskatu.

Bere gelako besteak ere, umeak, besterik ez. Noraino gaiztoak? Haiek ere etxean, kalean, telebistan eta nonahi ikusitako eta entzundako eredu bera kopia besterik ez zuten egin. Norena da errua orduan, errudunik baldin badago, behintzat. Zer ez du, adibidez Euskal Kulturaren planak, futbolak duen oihartzunik ez izateko? Hedabideen laguntza eskasa esaterako? Zenbat minutu erabili dituzte azken hilabeteotan gure telebista kateek informazio hori sakabanatzeko eta gure etxeetan ere barreiatzeko? Alderantziz ere egingo dut galdera. Zenbat minutu, ordu eta egun erabili dituzte azken hilabeteotan futbol taldeen inguruko berri eta txutxumutxu guztiak aipatzeko? Futbola da gauza bakarra denok batzen gaituena..., entzun dut harrotasunez baino sarriago harrokeriaz azken hilabeteetan, Erreala futbol taldea aitzakia bezala hartuta. Egia, bai, baina ez pentsa hori denik egia bakarra. Zine bateko areto batean ere, film on baten aurrean, maila eta pentsamendu ezberdinetako jendea biltzen da. Berdin musika kontzertu, edo antzerki lan, edo erakusketa gehintsuenetan. Ikusle kopuru gutxiago, horixe da ezberdintasun nagusia. Eta zer? Hori ere landu egin behar da, eta ez dugu gure telebistetan horren aldeko apustu handirik ikusten. Alderantziz esango nuke, gero eta urriagoak dira sail kulturalak eta nagusiagoak **telezakarkeriak**.

Kultura omen da gure altxorrik preziatuenetakoa, beste herri batzuegandik ezberdintzen gaituena. Baina kalera ateratzean, nahiz eta Bilbon izan, ala Madrilan, ala Parisen, sarritan ez da go jakiterik non zauden. Denok moda bera jarraituz janzten dugu, denok amerikarren filmak ikusiz gozatzen dugu, denok behin

eta berriro telebista piztu, eta munduko zoritxar eta injustizia guztiak irentsi ondoren, futbola ez beste askorik, aurkitzen dugu.

Zer ote du forma borobileko traste horrek, munduan beste ezer dagoenik ere ahaztera laguntzen duenean? Gol!!! Hitz magikoa, bat badago. Zorionekoak horrekin bakarrik konformatzen direnak, zoritxarrez eurena izango baita zeruko erreinua.

AGURTZANE INTXAURRAGA. ARGIA.

## **GALDERAK**

1. Beltz nabarmenez dauden hitz atzizkidunak kontuan hartu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin (1'5 puntu). *Haserraldi, ostikada, gelakide, erokeri, hedabide, zakarkeri.*

2. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik dauden perpausak (1'5 puntu).

3. Azpimarraturik dauden hitzen deklinabide-kasua eta numeroa aipatu, falta diren numeroen formak emanaz (Puntu bat).

4. Aztertu testu honen egokitasuna (3 p).

5. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 p).

6. Aipa itzazu Bernardo Atxagaren idazlanak eta kokatu bere ingurune historikoan (Puntu bat).